

*Juana Olea*  
*Zerain, Gipuzkoa (1912)*

Aurkibidea

## **Biografia**

Zeraingo Mendarte baserrian jaio zen 10 senideko familian. Zerainen eta Seguran eskolan ibili ondoren, Donostiara joan zen lanera, neskame.

## **Zintak**

### **ZER-001**

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Apaolaza, Amaia
- **Data:** 1996-01-01
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

# Pasarteak

## 1. 1912an Zeraingo Mendarte baserrian jaioa

- **Erref:** ZER-001/001
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

<p>1912an Zeraingo Mendarte baserrian jaioa. 10 senideko familia. 12 urtera arte Seguran eta Zerainen ibili zen eskolan eta gero, neskame joan zen Donostiara. 18 urterekin ezkondu eta zazpi seme-alaben ama da.</p>

## 2. Eskolan adin guztietakoak batera

- **Erref:** ZER-001/005
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:04:47. **Bukatu:** 00:05:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

### Laburpena:

<p>Eskolan, adin guztietakoek batera ikasten zuten.</p>

## 3. Zeraingo eraikuntzak

- **Erref:** ZER-001/008
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

<p>Zerain herri txikia bezain polita iruditzen zaio. Etxe berrien eraikuntza dela eta, kanpoko jendea bertaratu da. Herriko zenbait eraikuntza aipatzen ditu; eliza, San Blasko ermita, kultur etxea, taberna, bolalekua, pilotatokia...</p>

## 4. Aizpe auzoan bolalekua eta agroturismoa

- **Erref:** ZER-001/009
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:11:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

### Laburpena:

<p>Bolalekua lehenago ez zegoen gaurko tokian, orain bolaleku berria dago

Zerainen. Lehenago, Aizpe auzoa deiturikoan zegoen bolalekua bertako nahiz kanpoko jendearentzat. Auzo honetan agroturismo berria dute, asko gustatzen zaio. Agroturismoko jabeak aipatzen ditu eta inguruan geratzen diren herriak.</p>

## 5. Herriko eraikinak ikustera, kanpoko haurrak

- **Erref:** ZER-001/010
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:13:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

### Laburpena:

<p>Taberna, sagardotegia, oilasko granja izendatzen ditu. Garai batean ez zeuden gaurko eraikin hauek. Kanpotik haur asko gerturatzen da.</p>

## 6. Ikasketak Zerainen egin eta gerora kanpora lanera

- **Erref:** ZER-001/011
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:13:57. **Bukatu:** 00:14:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

<p>Txikia zela Zeraingo eskolara eta koskortutakoan neskame edo kanpora ateratzen ziren lanera.</p>

## 7. Apaizek zelatatzen zituzten erromerietan

- **Erref:** ZER-001/013
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:15:31. **Bukatu:** 00:18:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

### Laburpena:

<p>Festak, abuztuko Andra Marietan egiten dira betidanik. Soinua, dantzariak, bertsolariak izaten ziren lehenago. San Roke eguna ere festa eguna zen eta parranda egiten zuten. Filarmonika entzun eta ilundu aurretik etxeratzen ziren. Apaiz etxea zenean, dantzan ari zen jendea zelatatzen zuten apaizek.</p>

## 8. Inguruko festetarako baimena soilik; San Juanak

- **Erref:** ZER-001/014
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena:**

Inguruko herrietara joaten ziren festetara eta gertuenekoetara joateko bakarrik eman ohi zieten baimena. Dantza lotua egiten zen herrietara debekatua zuten, bekatua zelako. San Juan bezperan sua egiten zuten herriko plazan eta etxe guztietan. Festa haundia zen.

**9. Segurako Aste Santua, Santa Engrazi ermita eta Zeraingo San Blas**

- **Erref:** ZER-001/015
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » San Blas

**Laburpena:**

<p>Seguran aurreratuago zeuden eta dultzaineroak eramaten zituzten. Segurako ospakizun handiena Aste Santuko prozesioa da. Lehenago ere gaurko jantzi eta ohitura berdinez egiten zuten. Santa Engrazi ermitako eguna eta Zeraingo San Blas aipatzen ditu.</p>

**10. Gaur egungo Zegamako festak eta seme baten gaztetako ibilerak**

- **Erref:** ZER-001/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

**Laburpena:**

<p>Zegamako festetara ez ziren joaten dantza lotuagatik, baina gaur gazte asko ibiltzen da eguna argitu arte. Festa famatuak dira San Bartolomeak. Seme-alabak joan ohi ziren Zegamara. Seme baten ibilerak kontatzen ditu.</p>

**11. Herriko errotak**

- **Erref:** ZER-001/017
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena:**

<p>Inguruetako errotak: Aizperro, Armaola, Arrabiola, Urnausi, Malen errota...</p>



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com